EHU

# Marka-Gida 2026

EHUren Erakunde Nortasunaren Eskuliburu hau marka bisualeko nortasun sendo eta kalitatezko bat mantentzen laguntzeko sortu da.

Hori horrela, EHUren irudi bisuala zehazteko helburuaz, laburbiltzen dira erakundetik zabalduriko ikusizko mezu oro sortzeko kontsultatu beharreko jarraibideak. Beraz, eskuliburu honetako arauak guztiz errespetatzea da jatorrizko irudia babesteko berme bakarra, irudi horri kalte ez egiteko modua.

Marka da ondare ukiezin bat, unibertsitate osoari dagokiona, erakundearen ospeari modu bereizezinean lotua. Hau da, unibertsitatearen markaren tratamendua zorrotz zaintzeak eragin nabarmena du haren irudian eta Goi Mailako Hezkuntzan erreferentziazko erakunde gisa duen proiekzioan.

Edozein zalantza sortuz gero EHUren marka aplikatzean edo beste marka batzuekin batera erabiltzean, kontsultatu **Komunikazio Bulegoari.**

komunikazioa@ehu.eus



01 Sarrera

## Jatorria eta bilakaera

01.1. Aurkezpena 6
01.2. Jatorria eta bilakaera 7

02 Marka grafikoak

## Imagotipoa

02.1. Sarrera 9
02.2. Marka grafiko nagusia 10
02.3. Murrizketak / Bertsio negatiboa 13
02.4. Babesa eta erabilera okerrak 14
02.5. Ikastegien marka 15
02.6. Sailen marka 17
02.7. Institutuen marka 18
02.8. Ikerketa intentsiboko zentro propioen marka 19
02.9. EHU markak 20
02.10. Ikerketa taldeak 21
02.11. Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea ikasgelako marka 22
02.12. UNESCO katedra-marka 23
02.13. EHU Katedrak 24
02.14. Urteurrenetarako logotipoa 25
02.15. Unibertsitateko egituren arteko lankidetza 26
02.16. Beste marka grafiko batzuekin batera erabiltzeko arauak 27
02.17. Kanpoko logotipoekiko bizikidetza 28
02.18. Logotipoetan "x" irizpidea mantentzea 29
02.19. Marken arkitektura 30

03 Hizkuntza ofizialak

## Erabilera

03.1. Marka idaztea eta hizkuntzak 32
03.2. Bi hizkuntzetarako irizpideak 33
03.3. Terminologia erabiltzeko barne-gomendioak 34

## Testua

03.4. Titularren osaketa 39
03.5. Titular nagusien tamaina 40
03.5. Familia tipografikoaren erabilera 41

04 Elementu grafikoak

## Tipografia

04.1. Ikusmintzairari buruzko earbakiak 43
04.2. Zergatik tipografia propioa? 45
04.3. Kontzeptu sortzailea eta prozesua 46
04.4. Pisu eta familia tipografikoak 47
04.5. Tartea eta testuak 48

## Kolore-paleta

04.6. Sarrera 50
04.7. Kolore nagusiak 51
04.8. Bigarren mailako koloreak 52
04.9. Kromatismoa 54
04.10. Offline Paleta 55
04.11. Simbolismoa eta narratiba kromatikoa 56

## Erretikula

04.12. Sarrera 58
04.13. Erabiltzeko arauak 59
04.14. Ikusmen-sistema 60

05 Euskarri grafikoak

## Korporatiboak

05.1. Txartelak 77
05.2. Karteleria 79
05.3. Dokumentazioa 84
05.4. Digitala 85
05.5. Espazioa 87



# Sarrera

## Jatorria eta bilakaera

Euskal Herriko Unibertsitatearen ikusizko nortasuna eguneratu da, bere kultura- eta hizkuntza-ingurunearekiko lotura indartzeko. Hemendik aurrera, erakundearen marka nagusiak EHU siglak erabiliko ditu, euskaraz nahiz gaztelaniaz.

Aldaketa horrek bilakaera natural bati erantzuten dio, euskarazko izenaren erabilera gero eta hedatuagoarekin bat datorrena, bai maila instituzionalean, bai maila sozialean. Izendapen berriak marka sinplifikatu eta modernizatu egiten du, eta, aldi berean, unibertsitatea sortu zenetik definitu duten esentzia eta balioak mantentzen ditu.

UNIVERSIDAD DE BILBAO

UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

EHU

**1970**

1970ean, Bilboko Unibertsitateak bere lehen logoa onartu zuen, bere erro instituzionalak eta eskualdearekin zuen lotura islatzen zituen armarri tradizional batekin. Diseinu horrek unibertsitatea berregituratu arte iraun zuen ondorengo urteetan, Euskal Herriko Unibertsitatea bilakatu arte.

**1980**

1980an, Euskal Herriko Unibertsitatea sortu zenean, jatorrizko armarriari eutsi zion, baina gaztelaniazko eta euskarazko izendapenak gehitu zitzaizkion, bere nortasun elebidun berria eta euskal testuinguru kulturala islatzeko.

**1982**

1982an, Eduardo Chillida artistak armarria birdiseinatu zuen, eta «Zientziaren Zuhaitza» sortu zuen ezagutzaren eta hazkundearen sinbolo gisa. «Eman ta zabal zazu» leloa txertatu zuen diseinuak, unibertsitateak jakintzaren zabalkundearekin duen konpromisoa islatuz.

**2025**

Imagotipoa sinplifikatuko da, euskarazko eta gaztelaniazko izendapenak bertsio nagusitik ezabatuz. EHU ikurra eta siglak identitatearen elementu gako gisa finkatu dira, urteetako historiaren ondoren unibertsitateak irudikatzen duena nabarmenduz.

# Marka grafikoak
## Imagotipoa

## Erakundearen egungo behar estrategikoei erantzuteko, gure logotipoa moldatu dugu, testuinguru eta publiko desberdinetara malgutasun handiagoz egokitzeko aukera ematen diguna.

Bilakaera horrek imagotipo nagusi bat definitzera eraman gaitu, beste bi bertsio argigarriagorekin batera: bata izena bi hizkuntzatan sartzen duena eta bestea lau hizkuntzatan, komunikazio inklusiboagoa eta eskuragarriagoa bermatzeko asmoz. Gainera, logotipoaren bertsio horizontal bat gehitu dugu, halako antolaera behar duten formatuetarako pentsatua. Etorkizuneko aplikazioak baztertu gabe, gure marka-ikurritza integratzen duen bertsio bat garatu dugu, gure nortasuna eta mezua are gehiago indartuz hainbat ingurunetan.

EHU

01 Imagotipo nagusia

eman ta zabal zazu

EHU

02 Bertsio nagusia + claim

**EHUren nortasun bisuala ikurrak eta logotipoak osatzen dute.** Denboraren poderioz, logotipoaren bilakaerak elementuak ahalik eta gehien sinplifikatzera eraman du, baina betiere unibertsitatea erraz identifikagarri egiten duten elementuak mantenduz: zuhaitzaren sinboloa eta EHU siglak.

Elementu horien arteko kokapena eta proportzioak eskuliburu honetan ezarritakoaren arabera errespetatu behar dira, edozein aldaketak markaren osotasuna eta, ondorioz, Euskal Herriko Unibertsitatearen irudia kaltetu baititzake.

eman ta zabal zazu — Claim

Ikurra

EHU — Logotipoa

## Proportzioak

Marka sortzean, kontuan izan behar da alboko laukituan zehazten den proportzioen eskema, «X» balioaren arabera.




## Kolore korporatiboak

EHUren kolore korporatiboak dira Pantone Process Black eta kolore zuria. Kuatrikromia eta RGB baliokideak ere zehazten dira. Irizpide kromatiko hau aplikatzen zaie bai EHUren marka nagusiari bai EHU marka eta bertsio guztiei.

Pantone Process Black C
CMYK 0/0/0/100
RGB 0/0/0

Zuria
CMYK 0/0/0/00
RGB 255/255/255

## Tipografia

EHUren logoa birdiseinatzeko Helvetica Neue aukeratu dugu, tipografia gaurkotuagoa, argiagoa eta koherenteagoa delako; Helveticaren identitate klasikoa errespetatzen du, baina ukitu garaikideagoa du. Aldaketa tipografiko txiki horrek modernotasun- eta moldagarritasun-irudi berri bat ematen digu, eta logoaren irakurgarritasuna eta ikusmen-pertzepzioa hobetzen ditu hainbat ingurune eta tamainatan.

Helvetica eta Helvetica Neue-ren arteko desberdintasun nagusia fintze eta modernizazio tipografikoan datza. Helvetica Neue Helveticaren bertsio berrikusi eta orekatuagoa da, lerroen harmailetan, letren proportzioan eta formen geometrian doikuntza sotilak dituena. Gainera, pisu eta estilo aukera zabalagoa eskaintzen du, eta horrek malgutasun eta aldakortasun handiagoa ematen du.

Helvetica Neue

AaBbCcDdEeFfGgHhIiJjKkLlMmNn
OoPpQqRrSsTtUuVvWwXxYyZz
0123456789

## Markaren tamaina minimoak eta espazio murriztuetarako aldaerak

Markaren tamaina minimoak zehazten dira, edozein unetan irakurgarritasun eta ulermen egokia bermatzeko. Markaren bertsio murriztu bi daude, eta horiek erabili ahal izango dira «gehieneko murrizketa» (40 mm) baino tamaina txikiagoan erreproduzitu behar denean. Ez da gomendatzen marka 6 mm-ko zabalera baino txikiagoan erreproduzitzea. Tipografia zatia kentzen zaion bertsioa bakarrik erabili behar da pieza identifikatzeko inolako zalantzarik ez dagoen testuinguruetan.

## Markaren bertsio negatiboaren erabilera

Markaren bertsio negatiboa soilik erabili behar da, materialaren edo inprimatzeko teknikaren ezaugarriengatik, atzeko plano zurian inprimatzea ezinezkoa denean. Kasu horien artean daude merchandising aplikazioak, promozio-materialak eta objektuen pertsonalizazioa, besteak beste.

Gehienezko murrizketak eta markaren bertsio laburtuak

Noiz arte: 112x160 px

Noiz arte: 40x50 px

Noiz arte: 33x50 px

Bertsio negatiboa

## Babes ingurua

Marka babesteko inguru bat ezartzen da, kanpoko ezein elementuk inbaditu behar ez duena, marka behar bezala irakurri eta identifikatzeko.

## Erabilera okerrak

1. Ez da kanpoko inolako elementurik sartu behar logotipoaren «babes inguruan» .

2. Erabiliko den tipografia bakarra izango da Helvetica familia (marketan erabilia).

3. Ikurraren eta hitzezko adierazpenaren arteko konbinazioak mantendu egingo du Gida honetan ezarritako elementuen arteko proportzioa.

4. Portaera kromatikoak egokia izan behar du.






## Ikastegi markaren erabilerak

Euskal Herriko Unibertsitateko eskola, fakultate eta esperientzia-gelek beren logotipo propioa izango dute, eta horiek osatuko dira marka nagusiari ikastegiaren izen ofiziala (maiuskulaz eta gora lerrokatuta) gehituta. Egokitzapen horri esker, erakundearen nortasun bisualarekin koherentzia mantendu ahal izango da, eta, aldi berean, unitate bakoitzari ikusgarritasuna eta bereizgarritasuna emango zaio.




Adibidea:

EHU
BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA
ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO

Beste adibide batzuk:

EHU | GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA / FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN

EHU | ZUZENBIDE FAKULTATEA / FACULTAD DE DERECHO

EHU | ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA / ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

EHU | EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA / FACULTAD DE ECONOMÍA Y EMPRESA

EHU | HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA / FACULTAD DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA Y ANTROPOLOGÍA

EHU | PSIKOLOGIA FAKULTATEA / FACULTAD DE PSICOLOGÍA

## Ikastegi markaren nazioarteko erabilerak

Logo hauek eraikitzeko sistema ondokoa da: nazioarteko bertsioetarako logo horizontala eta fakultate edo eskolaren izena euskeraz eta ingelesez. Kasu honetan, % 100 beltza erabiltzen da ikastegiaren euskarazko izenean; itzulpenean, berriz, kolore grisa % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan.




Adibidea:

EHU | GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA / FACULTY OF SOCIAL AND COMMUNICATION SCIENCES

Beste adibide batzuk:

EHU | HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA / FACULTY OF EDUCATION AND SPORT

EHU | KIMIKA FAKULTATEA / FACULTY OF CHEMISTRY

EHU | EKONOMIA ETA ENPRESA FAKULTATEA / FACULTY OF ECONOMICS AND BUSINESS

EHU | ARTE EDERREN FAKULTATEA / FACULTY OF FINE ARTS

EHU | ZUZENBIDE FAKULTATEA / FACULTY OF LAW

## Sailak

Sail bakoitzak bere logotipo propioa izango du, eta horiek osatuko dira marka nagusiari sailaren izen ofiziala (minuskulaz idatzia) gehituta. Sailaren izena eta imagotipoa goian lerratuta egongo dira. Egitura horrek unibertsitatearen nortasun bisualarekin koherentzia mantentzea ahalbidetuko du, eta, era berean, sail bakoitzari bereizgarritasun egokia emango dio. Kasu honetan, % 100 beltza erabiltzen da Sailaren euskarazko izenean; eta itzulpenean, berriz, kolore grisa % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan.




Adibidea:

EHU

Biokimika
eta Biologia
Molekularra Saila
Departamento
de Bioquímica
y Biología Molecular

Beste adibide batzuk:

EHU — Ekonomia Aplikatua Saila / Departamento de Economía Aplicada

EHU — Farmakologia Saila / Departamento de Farmacología

EHU — Erizaintza I Saila / Departamento de Enfermería I

EHU — Bilakaeraren eta Hezkuntzaren Psikologia Saila / Departamento de Psicología Evolutiva y de la Educación

EHU — Genetika, Antropologia Fisikoa eta Animalien Fisiologia Saila / Departamento de Genética, Antropología Física y Fisiología Animal

EHU — Neurozientziak Saila / Departamento de Neurociencias

## Institutuak

EHUren institutuek beren logotipoa dute, eta sortzen da institutuaren izen ofiziala minuskulaz erantsita marka nagusiari eta gora lerratuta imagotipoarekin. Kasu honetan, % 100 beltza erabiltzen da institutuaren izenean; unibertsitatearen izenaren itzulpenean kolore grisa % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan erabiliko da.




Adibidea:

EHU
GEZKI
Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua
Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social

Beste adibide batzuk:

EHU
GEZKI
Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboko Institutua
Instituto de Derecho Cooperativo y Economía Social

## Ikerketa intentsiboko zentro propioak

Ikerketa intentsiborako zentro propioen kasuan, siglaren bereizgarria (Helvetica Bold)
eta ohiko nomenklatura dute zentroaren izenaren atalean imagotipoarekin lerratuta goian. Kasu honetan, zentroaren izena % 100 beltzean joango da; itzulpena, berriz, kolore grisa % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan.




Adibidea:

EHU | PiE
Plentziako
Itsas Estazioa
Estación Marina
de Plentzia

Beste adibide batzuk:

EHU | HiTZ
Hizkuntza Teknologiako Zentroa
Basque Center for Language Technology

EHU | ehuQC
EHU Quantum Center

EHU | CFAA
Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa
Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica

## EHUren beste markak

Erakunde eta egitasmo batzuek EHU marka propioak dituzte, eta beste modu batean sortzen dira.
EHU marka horietan, EHU siglak erabiltzen dira, letra xehez, erakundearen izenari lotuta, erdialdean.

Kanpo euskarrietan, ikurrarekin batera erabiltzen dira; barne euskarrietan, gabe, baldin eta testuingurua guztiz definituta badago. Imagotipo hauek testu jarraituaren zati direnean, honela idatzi behar dira:
«EHUkultura», «EHUalumni», hau da, EHU maiuskulaz eta gainerakoa, minuskulaz.

EHU markek Komunikazio Bulegoaren oniritzia behar dute.




Adibidea:

ehualumni

Beste adibide batzuk:

ehuAbesbatza

ehualumni

ehugune

ehualumni

ehuBiblioteka

ehuAbesbatza

ehukirola

ehuOrkestra sinfonikoa

ehugune

# Ikerketa taldeak

EHU imagotipoa erabiltzen dute, gehi *Ikerketa taldea - Grupo de investigación* izendapena.
Jarraian, taldearen izena doa.
Beharren arabera, marka eraikitzeko hiru bide onartzen dira.

## 1. Imagotipo / logotipo propioak dituzten markak

Dagoeneko imagotipoa edo logotipoa duten taldeek hirugarren atalean jarri ahalko dute, erdigunera lerrokatuta.
Ezin da aurreko bi atalek hartzen duten espazioa baino handiagoa izan, ez altueran, ez zabaleran.

## 2. Akronimo markak

Ikerketa intentsiboko zentro propioen eskema bera erabiliko dute, baina erdigunera lerrokatuta.

## 3. Marka deskribatzaileak

Aurrekoak bezala, baina akronimorik gabe.

Hiru kasuetan, Komunikazio Bulegoaren oniritzia behar da.

Ikertaldeek beren marka EHUtik kanpoko testuinguruetan erabili behar badute, eredu hauetaz baliatu behar dira.

Norberaren imagotipoak / logotipoak dituzten markak

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | ikasgura

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | LAIDA Literatura eta Identitatea

Akronimo markak

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | NanoBioCel
Mikro eta Nanoteknologien, Biomaterialeen eta Zelulen taldea
Grupo de Micro y Nano Tecnologías, Biomateriales y Células

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | IkHezi
Ikerketa Hezitzailea
Investigación Educativa

Marka deskribatzaileak

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | Neuropsikofarmakologia
Neuropsicofarmacología

EHU | IKERKETA TALDEA GRUPO DE INVESTIGACIÓN | Pertsona, Familia eta Ondarea
Persona, Familia y Patrimonio

## Unibertsitate-Enpresa-Gizartea

Izenek izan behar dute ahalik eta laburrenak, kontzeptuak errepikatu gabe. Marka hauek erabiltzen dute imagotipo nagusia eta sortzen dira erdigunera lerrokatuz euskarazko (kolore beltzean) eta gaztelaniazko izenak (kolore grisean % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan.)




Beste adibide batzuk:

EHU | TECNALIA GELA TEKNOLOGIKOA / AULA TECNOLÓGICA TECNALIA

EHU | AR RACKING GELA / AULA AR RACKING

EHU | FARMAKOLOGIAKO JANSSEN GELA / AULA JANSSEN EN FARMACOLOGÍA

EHU | ORMAZABAL-VELATIA GELA / AULA ORMAZABAL-VELATIA

## UNESCO katedra

Katedraren marka sortzen da katedraren izen ofiziala letra minuskulaz erantsita marka nagusiari.

Nazioarteko bertsioak ere dauzkate.

Euskarazko izena beltzez jarriko da, eta haren itzulpena kolore grisez izango da, % 70ean bertsio positiboan eta % 50ean negatiboan.

UNESCO katedrak UNESCO-Uniwin imagotipoa erabil dezakete, baina aldenduta agertu behar da, inoiz ez katedraren marka propioaren bloke berean.




Unesco-Unitwin logoarekin adibidea:



## EHU katedra

Euskal Herriko Unibertsitateko katedrek beren logotipoa izango dute, eta katedraren izen ofiziala marka nagusiari minuskulaz erantsiz osatuko da, goian lerratuta.




Adibideak:

EHU | Familia Enpresaren Katedra | Cátedra Empresa Familiar

EHU | Mikel Laboa Katedra

## Urteurrenak

Markari gehitzen zaio urteurrenaren berri ematen duen gehigarri tipografiko bat, eta soilik erabili behar da urteurrenaren urtean. Lelo bat gehitu nahi izanez gero, ez du gaindituko URTE/AÑOS atalaren zabalera.



## Lankidetzak

EHUko bi egitura (edo gehiago) maila berean elkarlanean ari direnean, ez da marka orokorra errepikatuko.

Entitate parte hartzaileen izenak elkarren segidako bloketan gehituz osatzen dira.




Adibide elebiduna:

EHU | BILBOKO INGENIARITZA ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA DE BILBAO | GIPUZKOAKO INGENIARITZA ESKOLA / ESCUELA DE INGENIERÍA DE GIPUZKOA

EHU | Irudigintza Saila / Departamento de Dibujo | Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea Saila / Departamento de Comunicación Audiovisual y Publicidad

EHU | Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza Saila / Departamento de Ingeniería Química y del Medio Ambiente | Komunikazioen Ingeniaritza Saila / Departamento de Ingeniería de Comunicaciones

EHU | HEZKUNTZA ETA KIROL FAKULTATEA / FACULTAD DE EDUCACIÓN Y DEPORTE | GIZARTE ETA KOMUNIKAZIO ZIENTZIEN FAKULTATEA / FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y DE LA COMUNICACIÓN

## Lehen mailako lankidetzak

Beste marka eta erakunde batzuk EHUren maila berean kokatzean, haien gehieneko altuerak ez du gainditu behar EHU markaren altuera.

Kokapenari dagokionez, beti egongo dira eskuinean, eta ezin izango dira egon 14x-etik beherako distantziara, bai marka nagusia denean, bai markaren bertsioetan.

Erabili behar ditugu marka laguntzaileen bertsio karratuenak, ahal dela zuri-beltzekoak edo gris-eskalakoak.

Aukera badago, eta piezan nahikoa leku zuri egonez gero, komenigarria litzateke bi markak bereiztea eta bi-biak nabarmen ikustea.














## KANPOKO LOGOTIPOEKIKO BIZIKIDETZA

Unibertsitatearen ospea ezinbestean lotuta dago bere markaren tratamenduarekin. EHUren nortasuna lehen mailako lankidetzetan kanpoko erakundeen logotipoekin batera bizi behar denean, jarraibide hauei jarraituko zaie jatorrizko irudia hondatzea saihesteko:

**Kokapena:**
Kanpoko marka EHU markaren eskuinaldean kokatu behar da beti.

**Distantzia:**
Ezin izango dira 14X baino distantzia txikiagoan egon (X logoaren neurri-unitatea da).

**Proportzioa:**
Kanpoko markak ez du EHU markaren gehieneko altuera gainditu behar maila hierarkiko bera mantentzeko.

**Estiloa:**
Marka laguntzaileen bertsio karratuenak erabili behar dira, ahal dela zuri-beltzekoak edo gris-eskalakoak.

**Zuriunea:**
Bi markak bereiztea gomendatzen da, babes-eremua gaindituz, bakoitzak bere aldetik "arnasa" har dezan.






# LOGOTIPOETAN “X” IRIZPIDEA MANTENTZEA

Ezarritako proportzioekiko erabateko errespetua da markaren osotasuna babesteko berme bakarra. X neurri-unitateak imagotipoaren elementu grafiko guztien eraikuntza arautzen du:

**Proporciones del logotipo:**

**Logotipoaren proportzioak:**
Zuhaitzaren sinboloak 11,5X altuera neurtu behar du, eta EHU siglek, berriz, 4,5X.

**Erretikulan integratzea:**
Logotipoak kokapen finkoa du goiko ezkerreko aldean, eta hertsiki lerrokatu behar da oinarriko laukiarekin (2 modulu zabalera bertikalean eta 2 modulu altu horizontalean).

**Babes eremua:**
Segurtasun eremu bat definitzen da (gutxienez 2 erretikula modulu libre), kanpoko edozein elementuk marka inbaditu edo oztopatzea eragozten duena.









### Marka grafiko nagusia

EHU

### Bertsio negatiboa

EHU

### Ikastegi / Esperientzia-gelaren marka

EHU | ARKITEKTURA GOI ESKOLA TEKNIKOA
ESCUELA TÉCNICA SUPERIOR DE ARQUITECTURA

EHU | FACULTY OF EDUCATION AND SPORT
UNIVERSITY OF THE BASQUE COUNTRY

### Sailaren marka

EHU | Ekonomia Aplikatua Saila
Departamento de Economía Aplicada

### Institutuaren marka

EHU | Kriminologiaren Euskal Institutua
Instituto Vasco de Criminología

### Ikerketa intentsiboko zentro propioaren marka

EHU | CFAA
Fabrikazio Aeronautiko Aurreratuko Zentroa
Centro de Fabricación Avanzada Aeronáutica

### Katedra-marka

EHU | Kultura Zientifikoko Katedra
Cátedra Cultura Científica

### EHU markak

ehu**alumni**

ehu***Abesbatza***

### Unibertsitatea-Enpresa-Gizartea ikasgelaren marka

EHU | FARMAKOLOGIAKO JANSSEN GELA
AULA JANSSEN EN FARMACOLOGÍA

### Ikerketa taldeak

EHU | IKERKETA TALDEA
GRUPO DE INVESTIGACIÓN | Neuropsikofarmakologia
Neuropsicofarmacología

# Hizkuntza ofizialen erabilera

## Markaren idazketa

Unibertsitatearen izenaren irakurketa errazteko, proposatzen da euskarazko testuetan erabiltzea Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU), eta gaztelaniazkoetan, lehenengo aldian, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Uniberstsitatea (EHU), eta hortik aurrera Universidad del País Vasco edo EHU.

---

Arau orokor gisa, EHUk sortutako edozein dokumentuk, komunikaziok edo elementuk, baldin eta hizkuntza elementuren bat badu, bermatu egingo du euskararen presentzia, eta hizkuntza bat baino gehiago baditu, euskarak izango du lehentasuna.

Adibidez, zutabeak erabiliz gero, ezkerrekoan euskarazko testua jarriko da; eskuinekoan, beste hizkuntzan idatzitakoa; edo goian euskara eta ondoren, beste hizkuntza.

... Euskal Herriko Unibertsitatearen (EHUren) informazioa kudeatzeko, eta enpresa prozesuetan IKT soluzioak txertatu ahal izateko. EHUk lankide ditu 250 enpresa laguntzaile baino gehiago, eta horietan egin ahal izango dituzun praktikei esker, prestakuntza integrala lortuko duzu....

...la información de la Universidad del País Vasco (EHU), permitiendo integrar soluciones de las TIC en dichos procesos empresariales. La EHU cuenta con la colaboración de más de 250 empresas en las que podrás realizar prácticas voluntarias que contribuirán a tu formación integral...

...information of the University of the Basque Country (EHU), enabling the integration of ICT solutions in these business processes. The EHU has the collaboration of more than 250 companies in which you will be able to carry out voluntary internships that will contribute to your comprehensive training...

## Bi hizkuntzetarako irizpideak:

Atal honek euskararen eta gaztelaniaren arteko bizikidetza-arauak ezartzen ditu, erakundearen berezko kultura- eta hizkuntza-ingurunearekiko errespetua bermatzeko. Komunikazio-piezetan (gutunak), gonbidapenetan edo irizpide-txostenetan protokolo hau aplikatzen da:

01

Lehentasuna eta elebitasuna: Dokumentu orok euskararen presentzia bermatu behar du, eta beti lehentasuna eman behar zaio beste hizkuntza batzuekin batera bizi bada.

02

Ikusizko hierarkia: Zutabe bikoitzeko diseinuetan, euskara ezkerrean kokatzen da; disposizio bertikaletan, goialdean kokatzen da.

03

Izen instituzionala: Euskaraz Euskal Herriko Unibertsitatea (EHU) erabiltzen da; gaztelaniaz, lehen aipamenak izen elebidun osoa izan behar du akronimora edo izen sinplera pasatu aurretik.

# Idazkera arauak

## Izen propioak

**Hasierako letra maiuskulaz:**

- **Orokorra:** EHUren izenak, izen arruntak, izen propioak, toponimoak.
- **Jakintza arloak:** Zientzia Esperimentalak.
- **Arlo akademiko nagusiak**: Zuzenbidea, Medikuntza, Ingeniaritza (erreferentzia orokorretan izan ezik: Matematikaren eta filosofiaren greziar aitzindariak...).
- **Graduko, graduondoko edo doktorego programetako titulazioak**; gradu hitza barne: Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako Gradua.
- **Irakasgai zehatzak:** Antzinaroko Gizarteak eta Kulturak.
- **Ikastegiak edo eskolak:** Arte Ederren Fakultatea.
- **Unibertsitate sailak:** Matematika Aplikatua.
- **Barneko administrazio zerbitzuak eta organoak**: Pertsonaleko Gerenteordetza.
- **Lanbide kategoriak, hasierako letra maiuskulaz bi kasutan bakarrik**: Irakasle-ikertzaileak, TEKAZEL.
- **Legeak eta arautegiak**: Legeen izen ez-ofizialak minuskulaz beti (hipoteka legea). Izen ofizialetan, maiuskulaz idazten dira elementu esanguratsu guztiak.
- **Defendatzailearen Lege Organikoa.** Hala ere, legearen izena luzeegia denean, lehenengo elementua bakarrik idazten da maiuskulaz: Puntukako gidabaimena arautzen duen eta trafikoari, ibilgailu motordunen zirkulazioari eta bide segurtasunari buruzko legearen testu artikulatua aldatzen duen legea; komatxo artean edo letra etzanez, testu baten barruan egonez gero, haren luzera mugatzeko. Hasierako maiuskula izenetan eta adjektiboetan, baina ez lotura partikuletan.

**Ez dute hasierako maiuskularik:**

- **Kargu akademikoak:** errektoreordea (baina Irakasleen arloko errektoreordea).
- **Administrazio karguak:** zuzendaria (baina Berdintasunerako zuzendaria).
- **Lanbide kategoriak:** bitarteko irakasle lan kontratudunak.

Protokolo dokumentuetan (txartelak, gonbidapenak, etab.) eta kargu oso zehatzen kasuan (Lehendakaria, Errektorea...), minuskulaz jarri behar da kargua, nahiz eta gero eta handiagoa den aurkakoa egiteko ohitura.

# Terminologia erabiltzeko barne gomendioak

## Izen arruntak

Hasierako letra minuskulaz beti. Aurreko izen guztiak erabil daitezke izen arrunt gisa. Beraz, kasu bakoitzean bereizten jakin behar da. Adibidez, Euskal Herriko Unibertsitatea, baina Euskal Herriko edozein unibertsitate. Edo Medikuntza Fakultatea, baina Estatuko Medikuntza fakultate guztiak. Unibertsitate hitza, izen arrunt gisa erabiltzean, minuskulaz idatzi behar da.

## EHUren izena

**Akronimoa:**

Beti EHU, bai euskaraz bai gaztelaniaz

**Izen Osoa:**

EHUren izen ofiziala da Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Komunikazio Bulegoan, kazetaritza testuetan, izena agertzen den lehen aldian idazten dugu izen osoa; hortik aurrera, akronimoa edo izen osoa erabiltzen dugu (baina testuaren hizkuntzan bakarrik). EHU akronimoa izen osoari gailentzea komeni ez bada ere, baliabide egoki bat izan daiteke ez errepikatzeko etengabe unibertsitatearen izena testu luzeetan. Bestetik, Universidad del País Vasco edo Euskal Herriko Unibertsitatea eta EHU aukerez gain, errepikapen antiestetikoak saihesteko hirugarren baliabide bat izan daiteke euskal unibertsitate publikoa erabiltzea (izen arruntaren ortografiarekin, baina erreferentzia eginez erakunde bakar bati).

# Terminologia erabiltzeko barne gomendioak

## Toponimoak

Izen ofizialak erabili behar dira, eta ñabardura batzuk sortzen ditu horrek. Horrela, lurraldeei dagokienez: Bizkaia eta Gipuzkoa, baina Álava gaztelaniaz eta Araba euskaraz. Jentilizioak beti minuskulaz: bizkaitar, gipuzkoar, arabar.

**Hiriburuak:**

BILBAO gaztelaniaz eta BILBO euskaraz.
GASTEIZ. Vitoria-Gasteiz da izen ofiziala, eta horrela idatzi behar da beti.
DONOSTIA. Donostia / San Sebastián, da izen ofiziala, zuriunea utzita barraren aurretik eta atzetik. Dena dela, aukera bat edo bestea (hizkuntza bakarrean) erabil daiteke, testu idatzi baten barruan.

Toponimo horien jentilizioak idatzi beharko lirateke beti erabiltzen ari den hizkuntzan.

Adibidez, Bizkaia edo Gipuzkoa, baina gaztelaniaz idaztean, vizcaíno/a eta guipuzcoano/a.

## Ikasturteak

Marratxoarekin idatzi behar dira: 2025-2026 ikasturtea (ez barrarekin).

# Testua

## Atal honek euskararen eta gaztelaniaren arteko elkarbizitza-arauak ezartzen ditu, erakundearen kultura- eta hizkuntza-ingurunearekiko errespetua bermatzeko.

Gutun (gutunak), gonbidapen (gonbidapenak) edo irizpide-txostenak (irizpideak) moduko komunikazio-piezetan, hurrengo protokoloa aplikatzen da:

## Titularren osaketa

Gure sistemaren barruan estilo bat erabiltzen dugu: azaletako testuak jorratzeko orduan, informazio-pieza nagusiak eta, oro har, testuen titularrak kutxaren barruan jarriko dira beti (aplikazioaren arabera) dagokion marjinarekin, ezkerrean lerrokatuko dira eta ez dira gidoiekin moztuko.

Titularra letra larriz idatzita egongo da, eta laburra izan beharko du, gutxi gorabehera 7-8 hitzekoa.

7-8 hitz baino gehiago daudenean, testu-gorputza proportzionalki murriztuko da.

Lerro batean sar daitezkeen titularrak egongo dira, baina konposizio- eta diseinu-arrazoiengatik, hizkuntza bakoitzaren titularra gehienez bost lerrotan zatituko da, eta, ahal dela, lerro-jauziak erabiliko dira bi edo hiru hitzetik behin

CURSOS DE LEN-
GUAS PARA VISI-
TANTES

*Hitzak marratxo bidez moztu.*

**BISITARIENTZAKO
HIZKUNTZA-
IKASTAROAK**

Cursos de lenguas
para visitantes

